

## INFORMAZIO-OHARRA LAGUN ARO BIZITZA OPTIMOA

---

Aseguru-etxeen Antolaketa, Ikuskatze eta Kaudimeneko Errege Dekretuaren 124. artikulua betetzeko, Seguros LAGUN ARO VIDA, S.A.k informazio-ohar hau entregatzen dio Aseguru Hartzaileari, ondorengoa esateko:

- **Legezko informazioa:**

Hauek dira kontratu hau arautzen duten legeak eta xedapenak: Aseguru Kontratuen urriaren 8ko 50/1980 Legeak, Aseguru Etxeen eta Berraseguratzailleen antolaketa, ikuskatze eta kaudimeneko uztailaren 14ko 20/2015 Legeak, haren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretuak, eta Xedapen hauek garatzeko gainerako araudiak, baita Baldintza Orokor eta Partikularretan hitzartutakoak eta, hala dagokionean, kontratu-aseguruaren baldintza berezietakoak ere bai. Aseguratuaren eskubideak mugatzen dituzten klausulak ez dira baliozkoak izango, idatziz berariaz onartzen ez badira. Onarpen hori ez da beharrezkoa legezko arauen transkripzio edo erreferentzia hutsak dituzten klausulak direnean.

- Erakunde aseguratzaillea **SEGUROS LAGUN ARO VIDA, S.A.** da, eta egoitza sozial hau du: Basurtuko Kaputxinoak, 6-2. 48013 Bilbo, Bizkaia, Espainia. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatua, Sozietateen BI-186 liburukia, 42. folioa, 16.779 orria, 1. inskripzioa - IFK: A-20182705.

Ekonomia Ministerioako Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari dagokio haren jardura kontrolatzea eta gainbegiratzea.

Erakundearen finantza- eta kaudimen-egoerari buruzko txostena kontsultatu nahi izanez gero: [www.seguros lagunaro.com/informacioncorporativa](http://www.seguros lagunaro.com/informacioncorporativa).

- **Non erreklamatu**

Auzirik sortuz gero, Aseguru Hartzaileak **lehendabizi** Bezeroarentzako Arreta Zerbitzura jo dezake, barneko esparruan, idazkia hona bidaliz:

- Seguros Lagun Aro Vida, S.A.  
Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua  
Basurtuko Kaputxinoen kalea, 6 – 2a.  
48013 Bilbo  
[www.seguros lagunaro.com](http://www.seguros lagunaro.com)  
[atencioncliente@seguros lagunaro.com](mailto:atencioncliente@seguros lagunaro.com)

**Bigarrenik**, eta adostasun-ezak badirau, kanpoko esparruan, idazkia hona bidaliz:

- Dirección General de Seguros y Fondos de Pensiones  
Servicio de Reclamaciones  
Paseo de la Castellana, 44  
28046 Madrid  
[www.dgsfp.mineco.es](http://www.dgsfp.mineco.es)

Erreklamazioak Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren Erreklamazio Zerbitzuaren aurrean onar eta izapide daitezten, ezinbestekoa izango da aurretiaz egin izana frogatzea, idatziz, Seguros Lagun Aro S.A.ren bezeroaren arreta-zerbitzuari. Honek aurkeztu zaizkion erreklamazioak hartu izanaren berri eman beharko du idazki bidez, eta arrazoiturik konpondu edo ukatu beharko ditu erreklamazioak; hori ere idazki bidez. Halaber, erreklamatzailleak erreklamazioa aurkeztu zuen dataz geroztik erreklamazioa konpondu gabe bi hilabete pasatu direla frogatu behar izango du, edo erreklamazioa onartzeari uko egin zaiola edo bere eskaera ezetsi dela.

**Edonola ere**, beti izango du Epaitegi eta Justizia Auzitegi arruntetara jotzeko aukera.

## INFORMAZIO-OHARRA LAGUN ARO BIZITZA OPTIMOA

- Eskainitako kapital-moduluak eta bermeak:

<b>HERIOTZA</b> 3.000 €-ko aurrerakina berehala eta izapiderik gabe, heriotzatik eratorritako gastuei aurre egiteko	<b>Gaixotasuna izanez gero Istripua izanez gero Zirkulazio-istripua izanez gero</b>	Berme hau izango da nagusia besteen aldean, eta nahitaezkoa izango da kapital aseguratuen zenbateko bat kontratatzea gaixotasun- zein istripu-kasurako. Era osagarri eta aukerakoan, aseguratutako kapitalaren zenbatekoak handitu ahal izango dira istripuen edo zirkulazio-istripuen kasuetarako.
<b>GAIXOTASUN LARRIAK:</b> - Kapital-aurrerakineko modalitatea	<b>Gaixotasuna edo istripua izanez gero</b>	Kontratzea aukerakoa den berme osagarria.
<b>BALIAEZINTASUN IRAUNKOR ABSOLUTUA</b>	<b>Gaixotasuna izanez gero Istripua izanez gero Zirkulazio-istripua izanez gero</b>	Kontratzea aukerakoa den berme osagarria. Kontratatzeko, nahitaezkoa da aseguratutako kapital-zenbateko bat finkatzea gaixotasun-kasuetarako nahiz heriotza-kasuetarako. Era osagarri eta aukerakoan, aseguratutako kapitalaren zenbatekoak handitu ahal izango dira istripuen edo zirkulazio-
<b>BALIAEZINTASUN IRAUNKOR OSOA (PROFESIONALA)</b>	<b>Gaixotasuna izanez gero Istripua izanez gero Zirkulazio-istripua izanez gero</b>	Kontratzea aukerakoa den berme osagarria, <b>Baliaezintasun Iraunkor Absolutuaren</b> bermearekin bateraezina. Kontratatzeko, nahitaezkoa da aseguratutako kapital-zenbateko bat finkatzea gaixotasun-kasuetarako nahiz heriotza-kasuetarako. Era osagarri eta aukerakoan, aseguratutako kapitalaren zenbatekoak handitu ahal izango dira istripuen edo zirkulazio-
<b>BALIAEZINTASUN IRAUNKOR PARTZIALA (BAREMOAREN ARABERA) ETA ABSOLUTUA</b>	<b>Istripua izanez gero Zirkulazio-istripua izanez gero</b>	Kontratzea aukerakoa den berme osagarria, lehendik <b>Baliaezintasun Iraunkor Absolutuaren</b> edo <b>Baliaezintasun Iraunkor Osoaren (Profesionalaren)</b> bermea kontratatu bada.
<b>LANEKO BAJA</b>	<b>Istripua izanez gero</b>	Kontratzea aukerakoa den berme osagarria
<b>OSPITALERATZEAGATIKO KALTE-ORDAINA</b>	<b>Istripua izanez gero</b>	Kontratzea aukerakoa den berme osagarria
<b>OSASUN-GASTUEN ITZULKETA</b>	<b>Istripua izanez gero</b>	Kontratzea aukerakoa den berme osagarria

- **Aseguruaren objektua eta Bermeen definizioa:**  
Bizitza-aseguru baten objektua aseguratutako pertsonaren bizitzaren eta/edo osotasun fisikoaren zein osasun-egoeraren esparruko arriskuak estaltzea da.

### HERIOTZA

Aseguratua hiltzea, gaixotasunez edo istripuz, edonolakoak direla ere hori gertatu deneko zirkunstantziak, arrazoiak eta lekua; kanpoan geratzen dira aseguruaren lehen urtean bere buruaz beste egitea, eta erreakzio edo erradiazio nuklearrarengatik edo kutsadura erradioaktiboarengatik zuzenean edo zeharka gertatutako ezbeharrak.

Erakunde Aseguratzailleak konpromisoa hartzen du polizako Baldintza Partikularretan primak kobratzeko ezarrita dagoen Aseguru Hartzailearen banku-kontuan **berehala eta inolako izapideren beharrik gabe 3.000 euro** emateko, **heriotzako berme nagusirako ezarrita dagoen kapital aseguruaren gaineko aurrerakin gisa.**

- **Istripu baten ondoriozko heriotza:**

Aseguratua hiltzea, kanpoko, bat-bateko eta aseguruaren borondatez kanpoko gertakari bortitz baten zuzeneko eraginez izandako gorputz-lesio batengatik, kontuan izanik lesio hori gertatu eta urtebeteko epean gertatzen dela aseguruaren heriotza.

- **Zirkulazio-istripuaren ondoriozko heriotza:**

Aseguratua hiltzea, baldintza hauetakoren batean izandako istripu baten ondorioz:

- Oinezko gisa, pertsonak garraia ditzakeen ibilgailu edo gailu batek sortutako istripua.
- Pertsonak garraia ditzakeen lurreko ibilgailu edo gailu bateko gidari edo bidaiari gisa.
- Lurreko, ur gaineko edo aireko garraio publikoko erabiltzaile gisa.

## **INFORMAZIO-OHARRA LAGUN ARO BIZITZA OPTIMOA**

---

### **GAIXOTASUN LARRIAK**

Aseguru honen efektuetarako, hau hartuko da gaixotasun larritzat: osasun-egoeran istripuz edo gaixotasunez sortutako edozein alterazio, aseguratua borondatez kanpo sortutakoa, legez aitortutako mediku batek berretsia eta jarraian zehazten diren gaixotasunetako batekin bat datorrena, kontuan izanik baldintza orokorretan ezarritako mugapenak eta eskusioak. Berme horretatik ordainketa bakar bat eratorriko da, hitzartutako kapitalaren zenbatekoan, nahiz eta estalitako gaixotasun bat baino gehiago diagnostikatu aseguratuari, data horietan edo beste data batean.

Kontratatzeko bi modalitate daude, bateraezina:

- **KAPITAL-AURRERAKINEKO MODALITATEA**

Berme honengatik egiten den ordainketa berme hori iraungitzea ekarriko du; horrela, aseguratutako kapitala kontratatutako gainerako berme nagusi eta osagarrietara mugatuko da, gaixotasun larrien bermean aseguratutako kapitalaren zenbateko berean.

Berme horretan aseguratutako kapitala eta Heriotzaren berme nagusian aseguratutako kapitala berdinak badira, berme harengatik egiten den ordainketa poliza azkentzea ekarriko du.

- **KAPITAL GEHIGARRIKO MODALITATEA**

Berme honengatik egiten den ordainketa berme hori iraungitzea ekarriko du, ez, ordea, kontratua amaitzea, kontratuak indarrean jarraituko baitu, kontratatutako berme eta kapitalen arabera. Aseguratuak gutxienez 30 egunez bizirik iraun beharko du diagnostikoa egiten den egunetik.

Estalduaren ondorioetarako, hauek joko dira gaixotasun larritzat: miokardioko infartua, minbizia, garuneko istripu baskularra, giltzurrun-gutxiegitasuna, arteria koronarioen kirurgia, zubi aortokoronarioa (By-pass), organo bitalak transplantatzea, paralisia, paraplegia, Alzheimer-en gaixotasuna, Parkinson-en gaixotasuna, koma-egoera, erabateko itsutasuna eta erredura larriak; betiere kontuan izanik poliza honetako baldintza orokorretan ezarritako definizioak, mugapenak eta kanpoan utzitako arriskuak.

Tratamendu medikoen eta diagnostiko-tekniken etengabeko aurrerapenak direla-eta, baliteke polizan aurreikusitako definizioak berrikusi behar izatea terminologia eta sailkapen medikoekin etorkizunean bat datozela eta tratamendu, txerto eraginkor eta diagnostiko-prozedura modernoak kontuan hartzen dituztela ziurtatzeko. Era berean, baliteke ondo iriztea etorkizunean sor daitezkeen gaixotasun berriak sartzeari, hain larriak ez diren beste batzuk kentzearen truke. Beraz, Seguros Lagun Aro Vida, S.A.k beretzat gordetzen du estalitako gaixotasun larriak aldatu ahal izateko nahiz haien definizioak doitzeko eskubidea; aldaketek, betiere, maila orokorrean eragingo diete izaera bereko poliza guztiei, eta inoiz ez maila indibidualean. Aldaketak gertatuz gero, poliza berritu baino bi hilabete lehenago komunikatuko zaizkio Aseguru Hartzaileari, eta hark uko egin ahal izango die haiekin ados ez badago.

### **BALIAEZINTASUN IRAUNKOR ABSOLUTUA**

Aseguratua borondatez kanpo sortutako egoera fisiko atzeraezina da, istripu edo gaixotasunak eragindakoa, Aseguratua ezin lanbide-harreman edo jarduera profesional izateko era iraunkorrean guztiz ezindua uzteko erabakigarria izan dena.

Berme honengatik egiten den ordainketa poliza hori iraungitzea ekarriko du, eta bermeak efekturik gabe geratuko dira.

- **Istripuagatik Baliaezintasun Iraunkor Absolutua:** Aseguratua ezin lanbide-harreman edo jarduera profesional izateko guztiz ezindua uzteko erabakigarria izan den aseguratua egoera fisiko atzeraezina, kanpoko, bat-bateko eta aseguratua borondatez kanpoko gertakari bortitz baten zuzeneko eraginez gertaturikoa, kontuan izanik lesio hori gertatu eta 18 hilabeteko epean gertatzen dela aseguratua baliaezintasuna.
- **Zirkulazio-istripuagatik baliaezintasun iraunkor absolutua:**  
Aseguratua ezin lanbide-harreman edo jarduera profesional izateko guztiz ezindua uzteko erabakigarria izan den aseguratua egoera fisiko atzeraezina, ondorengo baldintza hauetakoren batean izandako istripu baten ondorioz eragindakoa:
  - Oinezko gisa, pertsonak garraia ditzakeen ibilgailu edo gailu batek sortutako istripua.
  - Pertsonak garraia ditzakeen lurreko ibilgailu edo gailu bateko gidari edo bidaiari gisa.
  - Lurreko, ur gaineko edo aireko garraio publikoko erabiltzaile gisa.

### **BALIAEZINTASUN IRAUNKOR OSOA (PROFESIONALA)**

Aseguratua borondatez kanpo sortutako istripu edo gaixotasunak eragindako egoera fisiko atzeraezina, erabakigarria izan dena aseguratua ezindua uzteko espresuki adierazitako bere ohiko lanbiderako edo bere prestakuntzari edo ezagutza profesionalei dagokien antzeko jarduera baterako.

Berme honengatik egiten den ordainketa poliza hori iraungitzea ekarriko du.

Hau kontratatzea bateraezina da Baliaezintasun Iraunkor Absolutuaren aurreko bermearekin.

## INFORMAZIO-OHARRA LAGUN ARO BIZITZA OPTIMOA

---

- **Istripuagatiko Baliaezintasun Iraunkor Osoa (profesionala): Aseguratua espresuki adierazitako bere ohiko lanbiderako edo bere prestakuntzari edo ezagutza profesionali dagokien antzeko jardura baterako ezindua uzteko erabakigarria izan den aseguruaren egoera fisiko atzeraezina, kanpoko, bat-bateko eta aseguruaren borondatez kanpoko gertakari bortitz baten zuzeneko eraginez gertaturikoa, kontuan izanik lesio hori gertatu eta 18 hilabeteko epean gertatzen dela aseguruaren baliaezintasuna.**
- **Zirkulazio-istripuagatiko Baliaezintasun Iraunkor Osoa (Profesionala): Aseguratua espresuki adierazitako bere ohiko lanbiderako edo bere prestakuntzari edo ezagutza profesionali dagokien antzeko jardura baterako ezindua uzteko erabakigarria izan den aseguruaren egoera fisiko atzeraezina, ondorengo baldintza hauetakoren batean izandako istripu baten ondorioz eragindakoa:**
  - Oinezko gisa, pertsonak garraia ditzakeen ibilgailu edo gailu batek sortutako istripua.
  - Pertsonak garraia ditzakeen lurreko ibilgailu edo gailu bateko gidari edo bidaiari gisa.
  - Lurreko, ur gaineko edo aireko garraio publikoko erabiltzaile gisa.

### **ISTRIPUAGATIKO BALIAEZINTASUN IRAUNKOR PARTZIALA (BAREMOAREN ARABERA) ETA ERABATEKOA**

Polizak estalitako istripu batek eragindako gorputz-lesioen ondoriozko galera anatomikoa edo gorputz-atal edo organoen ezintasun funtzionala, istripu hori gertatu ondorengo urtebeteren barruan sortzen dena, eta, izendatutako peritu medikoen arabera, sendatuko ez dela aurreikusten denean.

Kalte-ordainen zenbatekoa zehazteko, polizaren baldintza orokorretako baremoan ezarritako kalte-ordainen ehunekoak aplikatuko zaizkio berme honetarako aseguratutako kapitalari, baita aplikazio-arauak ere.

Aseguratuari istripu baten ondorioz Baliaezintasun Iraunkor Absolutua eratorriko balitzaio, berme honetarako aseguratutako kapitalaren % 100 ordaintzeko konpromisoa hartzen du Erakunde Aseguratzailerak.

- **Zirkulazio-istripuagatiko Baliaezintasun Iraunkor Partziala (Baremoaren arabera) eta Absolutua:** Gorputz-lesioen ondoriozko galera anatomikoa edo gorputz-atal edo organoen ezintasun funtzionala, izendatutako peritu medikoen arabera sendatuko ez dela aurreikusten denean, eta ondorengo baldintza hauetakoren batean izandako istripu baten ondorioz eragindakoa:
  - Oinezko gisa, pertsonak garraia ditzakeen ibilgailu edo gailu batek sortutako istripua.
  - Pertsonak garraia ditzakeen lurreko ibilgailu edo gailu bateko gidari edo bidaiari gisa.
  - Lurreko, ur gaineko edo aireko garraio publikoko erabiltzaile gisa.

Aseguratuari zirkulazio-istripu baten ondorioz baliaezintasun iraunkor absolutua eratorriko balitzaio, kasu honetarako aseguratutako kapitalaren % 100 ordaintzeko konpromisoa hartzen du Erakunde Aseguratzailerak.

### **ISTRIPUAGATIKO LANEKO BAJA**

Aseguratuak adierazitako laneko jardura edo jardura profesionala lanaldi osoan aldi batez bete ezin izatea, polizan estalitako istripu baten ondorioz. Polizan zehaztutako eguneko zenbatekoa ordainduko da, ordainketa bakarrean eta ezarritako frankizia deskontatu eta gero, Aseguratzaileraren peritu-zerbitzuek alta medikoa zehazten duten datatik aurrera edo istripuaren datatik kontatzen hasita 365 eguneko gehieneko epea amaitzen den datatik aurrera.

### **ISTRIPUAGATIKO OSPITALERATZEAGATIKO KALTE-ORDAINA**

Polizak estalitako istripu baten ondorioz osasun-establezimendu batean 48 ordu baino gehiagoko ospitaleratzea izanez gero, Aseguratzailerak ordainketa bakar batean ordainduko du baldintza partikularretan ezarritako eguneroko zenbatekoa, ospitaleratze-egunetik alta-egunera artekoa, istripua gertatu ondorengo 365 eguneko muga izanik.

### **ISTRIPUAGATIKO OSASUN-GASTUEN ITZULKETA**

Polizak estalitako istripua gertatu zen datatik kontatzen hasita, gehienez 365 eguneko epean estaltzen dira, baldintza partikularretan ezarritako kapitalaren mugara iritsi arte:

- Medikulu-laguntza, anbulantzia, farmazia, ospitaleratze eta errehabilitazio fisikoaren gastuak.
- Protesiak edo mota funtzionaleko aparatu ortopedikoak, gehieneko muga izanik Heriotzaren berme nagusian aseguratutako kapitalaren % 5.

Gorputz-atal edo organoen transplantateak, kirurgia plastikoa eta lehendiko protesietan izandako kalteak ez daude estalita.

Mediku-laguntza Aseguru Etxeak espresuki onartutako medikuek eskaini beharko dute; hala ez bada, aseguruak gastuen erdia bere gain hartuko du, larrialdietako laguntzaren edo lehen laguntzaren gastuak salbu.

- **Kontratuaren iraupena:** Urtekoa, berriztagarria, gehienez aseguratua 70 urteko adinera iristen den aseguruaren urtaldira arte, eta estaldura osagarrien kasuan 65 urte betetzen dituen urtaldira arte.
- **Primak**  
Primak urtemuga bakoitzean eta alde zuzenetik ordainduko dira, Aseguratua bizi den bitartean eta aseguruak indarrean jarraitzen duen bitartean. Seguros Lagun Arok faktore hauetan oinarrituta kalkulatu du **urtaldi**

## INFORMAZIO-OHARRA LAGUN ARO BIZITZA OPTIMOA

---

**bakoitzeko prima:** adina, sexua, lanbidea, kirolak eta aseguruaren osasun-egoera. Hala, aseguru honek ez du jarduera diskriminatzailearik egiten, indarrean dagoen legeriak ezarritako hilkortasun-taula batzuk arautzen baitute eta arriskua kalkulatzeko kontuan hartzen diren faktore guztiek estatistikoki frogatutako eragina baitute. Prima urteroko berritze-aldi bakoitzean birkalkulatuko da, Aseguru-etxeak aseguru-modalitate honetarako adinen arabera ezarrita daukan urteko tarifa-koadroari jarraituz eta Aseguruaren adina eta urteroko berritze-aldi horretako aseguraturako kapitala kontuan hartuz.

- **Urteko primaren zatikatzea**

Ordainketa urtea baino epealdi txikiagotan zatika daiteke, dagokion zatikatzeagatiko errekarua ordainduz gero: hilean behin, bi hilean behin, hiru hilean behin, lau hilean behin eta sei hilean behin.

- **Osasun-deklarazioak/Proba medikoak**

Aseguruaren kontratua egiteko ezinbestekoa izango da zure osasunari buruzko galdera batzuei sinesgarritasunez erantzutea edo azterketa medikoa egitea, aseguratu beharreko kapitalaren gutzitiko zenbatekoaren arabera. Informazio hori Aseguru Etxeko langileek edo bertako profesional medikoek eta berraseguratzailerik tratatuko dute, helburu bakarrak arriskua behar bezala hautatzea eta tarifakazioa egitea eta ezbeharra izapidetzea izanik, betiere pribatutasun-politika zorrotza mantenduz.

Aseguratuak deklarazio horiek egitean aurrekari medikoen erreserba, zehaztugabetasuna edo egiazkotasun-falta egiten badu, konpainiak kontratua hutsal dezake legeak xedatutakoari jarraituta, edo ezbeharra ordaintzeari uko egin diezaioke, kasua hori bada.

- **Aldaketa aseguruaren indarraldiaren barnean.**

Aseguru Hartzaileak/Hartzaileek hasieran hitzartutako aseguruaren baldintzak aldatzeko gaitasuna izango du/dute, eta, horrela, honetarako gai izango da/dira:

- **Edozein unetan:** Aseguraturako kapitalak handitzea, aseguru osagarriren bat gehitzea eta beste Onuradun batzuk izendatzea, betiere, Aseguru Hartzaileak/Hartzaileek ez badio(te) uko egin esanbidez eta idatziz ahalmen horri.

- **Urteroko berritzeetan:** Aurrekoez gain, aseguraturako kapitalak gutxitzea, aseguru osagarrietakoren bat kentzea, kapitalaren urteko errealizazioaren ehunekoa edo modua, primak ordaintzeko aldizkakotasuna eta ordainagiriak helbideratzeko kontua edo erakundea aldatzea, sartzeta edo kentzea. Kasu horretan, Aseguru Hartzaileak/Hartzaileek bere aseguruan egin nahi ditu(zt)en aldaketen berri eman beharko du(te) hurrengo epemuga baino hilabete bat lehenago gutxienez, aldaketa horiek egun horretan sar daitezen indarrean.

Aldaketak berme osagarriak sartzeta edo aseguraturako kapitala handitzea baldin badakar, Aseguratuak frogatu egin beharko du bere osasun-egoera ez dela aldatu, kasu bakoitzean egoki diren arriskuak hautatuz. Hala ere, Aseguratzailerik eskaera hori baztertzeko edo aseguru-aldintzak eta tarifa aldatzeko eskumena izango du kasu horietan.

- **Erreskate- eta murriztapen-balioak.** Polizak ez du erreskateko eta murriztapeneko baliorik.

- **Mozkinetako partaidetza.** Ez da mozkinetako partaidetzarik aurreikusten.

- **Prestazioen eta aktibo adierazgarrien kontu-unitateak.** Ez dira aplikagarriak

- **Kontratua hutsaltzeko baldintzak**

→ **Aseguru Hartzaileak** kontratua alde bakarrez suntsitzeko ahalmena izango du, Aseguratzailerik poliza edo behin-behineko estaldura-dokumentua eman ondorengo **30 egunetan**.

Kontratua alde bakarrez suntsiarazteko ahalmen hori aipatutako epean idazki bat bidaliz gauzatu beharko du Aseguru Hartzaileak, eta bidalketa egiten den egunetik sortuko ditu ondorioak, une horretan etenda geratuko baita Aseguratzailerik aldetiko arrisku-estaldura.

Aseguru Hartzaileak ordaindutako primaren zenbatekoa berreskuratzeko eskubidea izango du, kontratua indarrean egon den denborari dagokion zatia eta lege zehazgarriak daitezkeen errekaruen eta zergen zatia izan ezik.

→ Era berean, **Aseguru Hartzaileak** aseguru-urtaldi bakoitzaren amaieran aseguru-kontratua hutsaltzea eskatu ahal izango du. Aseguru Hartzaileak jakinarazpen hori idatziz eta berak behar bezala sinatuta bidali beharko du, urteko berritze-data baino **1 hilabete lehenago**.

## INFORMAZIO-OHARRA LAGUN ARO BIZITZA OPTIMOA

---

→ **Aseguru Etxeak** honako arrazoi hauengatik hutsal dezake aseguru-kontratua:

- Aseguruaren lehenengo urtean, Aseguru Hartzaileak erreserba edo zehaztugabetasunen bat egin badu aseguraturako arriskuaren deklarazioetan. Horretarako, Aseguratzailerak hilabeteko epea izango du hutsaltzea jakinarazteko, ohartzen den unetik kontaktzen hasita. Urtebeteko epea ez da aintzakotzat hartuko Aseguru Hartzaileak doloz eta/edo erru larritz jokatu badu. Aseguratzailerak aurreko paragrafoan adierazitako deklarazioa egin aurretik gertatuz gero ezbeharra, prestazioa adostutako primaren eta arriskuaren benetako garrantzia jakin izan balitz aplikatuko zatekeenaren arteko aldearen proportzioan murriztuko da.
- Aseguratuak deklaraturako adina ez bada zuzena, eta benetako adinak Baldintza Orokor hauetan zehaztutako kontratazio-mugak gainditzen baditu.
- Lehenengo prima ez bada ordaintzen eta, bigarren prima eta ondorengoentzat, ordaintzen ez direnean eta poliza iraungitzen denean epea amaitu delako.

**Aseguru Etxeak ez du inola ere poliza deuseztatuko Aseguruaren osasun-egoera okerrera joan bada edo larriagotu egin bada kontratazioaren unean polizaren Baldintza Partikularretan zehaztutako Osasun Deklarazioan jasotako hasierako osasun-egoerarekiko, hori baita aseguru honen objektua.**

**Halaber, Aseguru Hartzaileak edo Aseguratuak ez dauka Aseguruaren osasun-egoeraren inguruabarren aldaketaren berri eman beharrik, ezein kasutan ez baitira arriskuaren areagotzetzat jotzen.**

- **Disputaezintasuna**

Aseguru Hartzaileak Aseguratzailerari eska diezaiokie, poliza entregatzen hasi eta **30 eguneko epean**, polizaren eta aseguru-eskaeraren edo adostutako klausulen arteko desadostasunak konpon daitezela. Epe hori amaitu eta erreklamaziorik egin ez bada, polizan ezarritakoari jarraituko zaio. Poliza hori ezingo da aurkaratu formalizatu denetik **urtebete** igaro ondoren; une horretatik aurrera disputaezin bilakatuko da, Baldintza Partikularretan epe laburragoa zehazten ez bada.

- **Kontratuaren mugak**

**Seguros Lagun Aro S.A.k beretzat gordetzen du kontratuaren arabera ordaindu beharreko prima-tarifak zorrotz mailan aldatzeko eskubidea, betiere aldaketa hori ezbehar-tasaren edo zorrotzaren gastu osoaren desbiderapen materialak eragin badu; halakoetan, Aseguru Hartzaileak uko egin ahal izango dio poliza berritzeari, egindako aldaketarekin ados ez badago.**

**Birtarifikazio kolektiborako eskubide hori baliatzeko ondoretarako, aseguru-zorro hau 2700 produktu tekniko modalitatearen A motako poliza-zorroaren barruan sartzen dela ezartzen da, Komertziala Optima Bizitza izendapenarekin.**

**Era berean, ezbehar-tasaren edo gastuen desbiderapen gisa hartuko da urte batean lehen aipaturako poliza-zorrorako Ohar Teknikoan berme bakoitzaren mailan ezarritako Oinarri teknikoarekiko % 5 baino galera handiagoak erregistratzea.**

**Kasu horretan, Seguros Lagun Aro Vida, S.A.k idatziz eta bi hilabete lehenago gutxienez jakinaraziko dio Aseguru Hartzaileari berritzeko prima aldatu dela. Aseguru Hartzaileak, ados egongo ez balitz, uko egin ahal izango lioke aldaketari.**

- **Aplikatu beharreko zerga-erregimena.**

- **ASEGURU-HARTZAILEA ETA -ONURADUNA PERTSONA BERA DIRENEAN**

Aseguruaren prestazioek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan tributatzen dute, Kapital Higidarriaren Errendimendu gisa. Errendimendua jasotako prestazioaren eta ezbeharra gertatutako aseguru-urtaldian zehar ordaindutako primen arteko diferentzia gisa kalkulatzeko da. Seguros LAGUN ARO VIDA S.A.k atxikipen fiskala aplikatuko dio errendimenduari, prestazioa ematen duen unean, indarrean dagoen legerian ezarrita dagoena betez.

- **ASEGURU-HARTZAILEA ETA -ONURADUNA PERTSONA BERA EZ DIRENEAN**

Prestazioek Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga ordaindu behar dute, eta bizitzaren gaineko aseguru-kontratuagatik kenketa bat dute.

Zenbait erkidegotan kenkari oso handiak daude Aseguru Hartzailearen eta Onuradunaren arteko erlazioa ezkontide edo izatezko bikote, aurreko edo ondorengo ahaidearena denean, ia zerga ordaintzeko beharrik gabe.

Maileguak amortizatzen kopuruak tributatzetik libre geratzen dira, gertaera eragilea heriotza denean.